


Miren Judarie Lyone
Biltinga 49-1^o. S. Leake
t^o 63 7803

PAKITAREKIN SOLASEAN

Xarlan
9

3



Martxo 96

* * * PAKITAREKIN SOLASEAN * * *

* Lehen, nolakoa zen bizimodua ?

- Lehengo bizimodua guaingotikan oso difentia. Biño konten bizi ginen gure bizimoduarekin. Guaingoa izan begenu kontentago.

* Nola egiten zenuten lixiba ?

- Lixiba ? Arropa paratu ura epelin beratzen, gero xaboiakin xaboi tu eta patzen genun kuelan. Kuela zen barrika bat bezala egurrezkua. Hartan paratu eta ongi zanpatu eta gero gaintikan botatzen genion ur berua,-beno paratzen genion- erraten genion otsakua, trapo bat paratu ta haretara botatzen genion suko hautsa. Gero hareri bota ur berua, eta hura izaten giñun lixiba, eta ura gero ateitzen zion betikan, ura berotu berriz eta haretan garbitzen giñun arropa kolozkua.

* Etxeko lanetan denak hartzen zenuten parte ?

- Eskoltikan yuatin, batzuk egurrak eraman etxera, bertzik be-larrak ekarri goittikan beittira ta bertzik azpiyak ateri- Zuk eztuzu hori enteintuko biñon-.Bihar izaten giñun goiztan goiz yiki eta eskolara antziñin herrira eramin esnik, etxera yoan eta gosaldu eta eskolara.

* Nola eta nora joaten zineten erosketak egitera ?

- Erosketak bazirela guain bazala dendak ordun ere.

- (Alaba) Baina dirukin etzenuten erosten, arrautzik saldu ta

- Baitare

- (Alaba) eta gauzak erosi

* Nola egiten zenuten ogia ?

- Ogia ? Ogiya beti guk eros egin giñun, bakarrik taluk eiten ge-fittun.

Artu iriñakin ta gero jaten giñun talo ta gazta ta talo ta esnia.

- (Alaba) Kontatu taluk hasieratikan nola egiten ziren.

- Pues taluk eiten genittuen, artua eramin errotara eta iriña egin eta gero opillak, opillak erraten genion taluari, egiten genittun aska bat bazala ta hereri deitzen genion maira ta hartan iten giñun ..

- (Alaba) masa

- erraten genion oria, gero eiten geñittun taluk, erre, etzen koina ekonomika izaten, lurko sua,(fogon), ta hartan eiten giñun erre opillak.

* Ze jokutara jolasten zineten ?

- Jokuk ? Pues aritzen giñen pillotan igual. Atin izaten giñun itxin paretari aritzen giñen pillotan eta kanikak eta tenore honetan umexurrak, tabas, guain eztut uste aritzen diren.

* Ez dakit, ez dut uste.

- Tabak eta gero soka saltua erraten genion,konba, ta hola.

* Ipuin zaharren bat kontatzen ahal diguzu ?

- Ipuin ? Antzi dittut denak.

- (Alaba) Lamiana baduzu baten bat.

- Lamiana ? Bada baserri bat izena duna Berrotaran, ta battu harek hurbilin hola eta erraten zuten handik ateitzen zirela lamiñak ta iten omen zioten haurran aya yan ta in omen zun egun batin hango gizonak an drez yauntzi eta yuan sukaldera eta ayan barrenin burua sartu ta erraten zuten etortzen zirela Mastegin, hemen bada Mastegi, hor, peña batzuk, ta handik pasatzen Berrotandikan pasatzen zirela zulotik barna horrat, ta honat etortzen zirela eguzkia hartu ta urrezko orraxikin orraxten zirela. Guri erraten zizttuten hola, amautxik ta...

* Nola hiltzen zenuten txerria ?

- Txerriya ? Lehenbiziko itten zen txerriya gizendu, ederra egin eta gero prestatzen zen hiltzeko eguna, ta bezperatik prestatzen geñi-

ttun arrozak, tipulak ta dena prest paratu eta hurrengo goizin etortzen zen tzerri hiltzalia ta yuaten ziren auzotikan gizon bat edo bertze kon tzeko txerriyari eta. Emakume batek, nik neunek hartutzen nun ,hasi nintzen hameka urtetan tzerriyan odola hartutzen, bertze andre xar batek erautsi zian ta harekin itten ziren.

Lehenbiziko odola prestatu tipulakin ta arrozakin ta gero txerriyan tripak garbittu, tripan sartu ta egosi odolrik eta zera bereixten ziren magrak, solomuk eta bertze haragi tartekuk eta txistorrak itteko, lukainka sartutzen ziren ertze mitan. Ertze lodiyakin odolrik eta ertze mian sartutzen ziren haragia eta itten ziren txistorrak onak baserriko, ta solomuk ta magrak ta paratzen ziren gatza ta baratxurikin ta salmueran, ta gero iten ziren barreño handi batin paratu eta haretan egun batzuk pasatu. Ta garbitu ta paratzen ziren xintxillik sukaldin, ta han idortu ta solomo puskak, idortzen zirelikan puskatan sartu eltze haundi batzutan ta oliyo ta manteka nasi ta hartan konserbatzen ziren urte guziko. Ta txistorrak ere bai idortzen zirelikan sartutzen genittun eltzitan. Ta magrak berriz, txintxillik paratu, lehenbiziko gazindia erraten genion kajon batzutan eduki gatzakin ta baratxuriyakin ta han gazitzitzen zirenin ongi garbittu eta xintxillik paratu ta gero yan.

- (Alaba) Galdetu baserriko lanetaz.

- Artua xuritu, artua berexi, errotara eramen ta irina geurek yan ta azindari ere ematten zitzayon, guain negun eltzen azindak bazkatu gero egurra ekarri, biño ia tenore honetik antziñera, pues patatak ereiten gero, ixtantin artuk erein, ta tarti hortan itten zen itxe geyenetan kislabia ,kisua zen guango abonoa minerala erosten den bezala biñon kisua ,(cal), hura biar izatten zen lemiziko egurra karri menditik, egurra aunitz pilatu ta gero harriya ta paratu kislabia kargatua

erratten zitzayon. Itten zen meta bat bezala harriyak, ta gero azpitikan zaten zun zulu, han egurra sartu ta itten zen harriya erre, ta kisua iñ ta gero, hura landara ta bota, kanpun, artua ta ereitteko, eta ereitten zen erremolatxa, eta gero handikan ixtantin artuk yorratu izatten zen aitzurra, ordun etzen makinikan ordun aitzurrakin aritzen giñen artuk yorratu eta patatak yorratu, ta artua biar izaten zen erein ta gero tamañun paratzeko bakandu erraten zitzayon, tartin sobran zirenak ateri, gero handikan hasitzen ziren belarrak, belarrak guain ebakitzten dire, biño ordun itten ziren segakin, ta idortu ta metak egin, guain enpaketatu itten dire biño ordun itten ziren metak. Guain ere bai batzuk binon, gero iratzik, bueno bittartin, iratzik bittartin ateitzen dire patatak ateri eta, bertze, illarrak billu ta. Iratzik, yuaten ziren mendira, hantxe eguna pasatu iratzia pikatzen gero billu, metak egin beyakin karrukin karri itxera, guain traktorikin bazala, ordun beyakin, ta atin pillak egin eta neguko prestatu.

Ta negun itten zun guain biño elurra gehigo, ta guk ordun pasatzen ginun hagitz ongi txoriyak arrautzen, elkarrerri elurra tiratzen, itten genun besta, elurra itten zulikan. Guain ez da elurra ikusten.

Musika banda izandu dugu beti Lesakan eta yotzen zuten musika. Biñon, musika ari zulikan biar izaten genun gere tenorin itxera yuan, barserria urrutti gelditzen zen, eta biar genun atta ta amak erratten zuten orduko itxera yuan. Musika penakin utzi plazan ta itxera. Ta plazara yuateko zatten ziren ordun bezperak elizan, visperas, ta yuaten giñen, plazara yuan bar bagenun lenbizko bezpetara. Iruitzen zitzaigun plazara yuatia, guain ezta bekaturik, guain dena ongi da. Biño, nik nahiko nuke guain bezala pasa izan bagenu.

Lehenon ongi pasatu giñun biñon gwaingo gustatzen zait gatzintzat. Garizma erraten gunun cuaresma ta ordun etzen zatten musikikan. Ta itten genun , kuadrillak zubiño yuan pasitzera. Kuadrillan yuaten giñen zubira ta han ikusi trena pasatzen ta igande arrasaldia, kontent itxera.

GAZTA. Esnia paratu eltze haundi on batin, epeldu eta leenogo itten zen gatzagia, bildotxari kendutzen zitzaion gatzagia, cuajo, guain eitten da artifiziala gatzagia .Ta hori bota esne epelari ta nasi ta itten da gatzatu ta han pixko bat tamaña, gogortu bittarte iduki ta gero nasi, gero polliki eskukin billu ta izaten zen paratzko ontzi bat, erraten genion zimitza, ta hartan zanpa-zanpa egin eta gero aterikanpora.

* Eta zenbat denbora behar zen idortzeko ?

- Idortzeko ? Eztakit, beyana itten giñun ta idortzen da ardiyana biño abudogo, noski, ardiyana ez dugu izan beifere.

* Hemendik ateitzeko , nola ?

- Hemendik ateitzeko beti izautu dugu autobusa hemen. Gure denboran izautu dugu autobusa ta trena. Guain ya trena galdu zen, biño,trena bazen lenogo ta kotxik bat edo bertze biño etzen kotxik ibiltzen.

Miren Zudaire Ajona.

Bittiria 49: 1: A (Lesaka)

Telefonoa: 637 803

1: D.B.H. Toki-Ona
Institutoa